








► **INMERSIONES 2018 • EN TORNO A LA HOGUERA / SUAREN INGURUAN**

Artista Sortu Berrien XI. Biltzarra. 2018ko azaroaren 29 eta 30a eta abenduaren 1a, Vitoria-Gasteiz.
XI Congreso de Artistas Emergentes. Vitoria-Gasteiz. 29 y 30 de noviembre y 1 de diciembre de 2018.

► **TALDE ERAGILEA • GRUPO MOTOR**

Komisariotza • Comisariado: Maria Ptqk
Produkzioa • Producción: Cristina Arrazola-Oñate
Laguntzailea • Ayudante: María Arambarri

► **TESTUAK • TEXTOS**

Maria Ptqk
Ana Longoni
Ania González & Horacio González
Bego Antón
Rakel Gómez Vázquez
Lourdes de la Cal
Beatriz Perales
Oihane Iragüen
Sandra Amutxastegi
Terri Florido
Belén Cerezo
Mariana Unda
Miriam Isasi
Raquel Asensi
Idoia Zabaleta
Ana de Vicente
Garazi Gorostiaga
Raquel Meyers
Raketa Brokobitx

► **ILUSTRAZIOAK • ILUSTRACIONES**

Janire Orduna

► **ARGAZKIAK • FOTOGRAFÍAS**

Jorge Salvador

► **IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA BIDEOA • AUDIOVISUALES Y VÍDEO**

Eneka Aranzabal

► **DISEINUA ETA MAKETAZIOA • DISEÑO Y MAQUETACIÓN**

Ibon Sáenz de Olazagoitia

► **ITZULPENAK • TRADUCCIONES**

Iñaki Lopez de Luzuriaga

► **LIZENTZIA • LICENCIA**

Creative Commons • Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Espainia • Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 4.0 España

► **MOLDIZTEGIA • IMPRENTA**

Gertu

► **LEGE GORDAILUA • DEPÓSITO LEGAL**

VI-764/2019

► **ISBN**

978-84-09-13249-2

04 KOMISARIOTZA • COMISARIADO

María Ptqk

08 GONBIDATUAK • INVITADAS

Ana Longoni
Ania González & Horacio González
Bego Antón
Rakel Gómez Vázquez • Educaciones

22 BILTZARREKO PONENTZIAK • PONENCIAS CONGRESO

Lourdes de la Cal
Beatriz Perales
Oihane Iragüen
Sandra Amutxastegi
Terri Florido
Belén Cerezo
Mariana Unda
Miriam Isasi
Raquel Asensi

36 EKINTZAK • ACCIONES

Idoia Zabaleta
Ana de Vicente
Garazi Gorostiaga
Raquel Meyers
Raketa Brokobitx

46 KONJURUEN TXAPELKETA ETA ERAKUSKETA • CONCURSO Y EXPOSICIÓN DE CONJUROS

48 JENDARTERATZEN • SOCIALIZANDO

SUAREN INGURUAN. EGUNGO SORGIN JARDUERAK

Maria Ptqk

Inmersiones 2018ri izena ematen dion sua inbokazio bat da. Galdera baten gainean irekitzen den deiadar edo ate moduko bat; galdera hori, imajinatu dudanean, senak esan dit beste gorputz batzuetan ere baduela oihartzuna. Galdera (izan ere, badu oihartzuna, bai) era honetan adieraz daiteke. Zer forma hartzen dute egun, modu beti esplizituetan ez bada ere, "sorgintasunaren" ideari lotzen zaizkion praktika batzuek? Egiteko eta ezagutzeko zer formak, munduan egiteko zer formak, eguneratzen dute herentzia hori, aldi berean mitoa eta oroimena, historia eta mamu-antza dena?

Sorginaren irudia balio bikoa da. Aro Modernoaren hasieran agertu zen herri iruditerian, eta bi mende baino gehiago luzatu zen kristautasunaren lurralde osoan, Europatik Amerikaraino, kolonialismo, ilustrazioaren goraldi eta iraultza zientifikoarekin batera. Hala ere, historiografia berrienarekin bat etorritik, sorgin epaiketak ez dira iraungitzen ari zen mundu baten azken astinduak (sarritan esan izan den bezala), feudalismo aroko ignorantzia eta sineskeriarenak, baizik eta *statu quo* berri baten lehenak, paradigma aldaketa luze bat, non sorgin ehizak jazarpen politikoak diren. Jazarpen hori borroka bat da, herri lurren jabetza, baserritarren zapalkuntza eta natura ingurunearen jakintzei buruzkoa, bereziki gaia osasuna eta bizitzari eustea denean. Baina beste helburu batzuetarako ere balio du. Sorginkeria prozesuak argumentu bat dira eraso militarrek egiteko, lurralde matxinoak azpiratzeko eta, oro har, lehiak diren botere faktikoen borroka eta konspirazioak artikulatzeko, eta sortzearen mundu berriarengatik lehiazeko: estatu-nazioa, hiriko klase hazkorak eta Eliza instituzioak, besteak beste.

Testuinguru horren fruitua dira erratz hegalariei, gaueko zeremoniei, deabruarekin larrutan egitearen edo erretiluetan zerbitzatzen ziren titiko

umeen ipuinak. Irudi horiek gaurdaino errepikatu dira; aldiz, torturapean ateratako aitorpenak dira, ia denak berdinak, eta guztiak ere egiantze-kotasun gabeak, inkisidorearen buruak asmatuak.

Aldi berean, baina, zapalkuntza zama hori edukiagatik, sorginak irado-kitzaileak diren promesak pizten ditu. Bata, geroratu den emakumeen iraultza: arketipo matxista gisa deskodetu dute sorgina, eta berreskuratu, mugimendu horretan uhinez uhin, oroimen kolektiboaren ikur bihurtuta. Askotariko joera feministen artean, "erre ezin zenituzten sorginen alabak gara" goiburuak aztarna utzi du sentsibilitateetan eta belaunaldietan. Beste promesa bat naturarekin bat egitea da, haren botere eta misterioekin: belagileak zerua irakurtzen daki, lurra usaintzen, belarrak eta onddoak lantzen, erleak eta zizareak hazten, eta berak ezagutzen du zein den erremedioa pozoitik bereizten duen neurri egokia, berak laguntzen du desiratua denean umea ekartzen, eta hala ez denean eragozten. Beste promesa bat gehiago: ezkutu, ikusezin, azaldu ezin denarekin harremana izatea, dionisiakoa denarekin eta ilunaren erresumekin, baita magia eta kultu paganoekin ere, zentzumenez kanpoko esperientzien eta beste buru aldarreen jakituriarekin. Alde horretatik, sorgina *medium* bat da, ibaiertzen arteko txalupazaina, munduen arteko bitartekaria, pitzaduren ezagulea.

Proposamen kuratorial bihurtuta, promesa horiek guztiek (izatearena, ahal izatearena, jakitearena eta transzendentziarena) topaketarako oinarri bat jarri dute. Akelarrearen espazio-denbora bat da, artearen arloan oinarritua, baina artea ere gaindituz, eta bi noranzkotan begiratzera gonbidatzen gaitu. Alde batetik, arte estrategiek bazterretatik eta flotazio marraz behetik doazen jakin eta egiteko erak, sorginenak bezalakoak, balioztatzen dituzten moduetara: ezagutza anonimoak, aginterik



gabeak edo zilegitasunez gabetuak, metodologia anomaloak edo mugakoak, sasi(ko) zientziak, desagokiak edo periferikoak, dokumentatu gabeko epistemologiak. Bestetik, suaren ideia, sukalde edo "sutondo" gisa: etimologikoki, sua egiten den tokia (hurbilekoa). Begirada horretan oinarrituz agertzen dira aterpe eta ahizpatasun inguruneak buruz, espazio fisiko eta sinbolikoei buruz, interesatzen diren proposamenak, inkisizio mota berrien zein zaharren babesleku. Bertan, liluramenduak eta kontra-aztikiariak asmatzen dira, eta munduari buruzko beste istorio batzuk biziberritzen.

Bitarteko desberdinak baliatuz, Inmersiones 2018ko artistak lur eremu horretan ibiltzen dira. Hasi klandestinitateko/sasiko amarruetatik edo oroimenaren biziraupenetik gorputzaren askotariko adimenetara edo hitzeraino, non hura magiatzat hartzen den; sinbolikoa inbokazio gisa erabiltzetik (zer da bestela artea) herri arteen edo generoko aginduei entzungor egingo dieten emakumeen (basati, desagoki, petral, muturbeltz, zoro, "sorgin") estereotipoen inguruko gogoeta kritikoraino. Haien heterogeneitatean, aurkeztutako proposamenek badute zerbait berdina, elkarrekin eta ez dauden beste batzuekin lotzen dituen zerbait, ez ardatz nagusia gisa, baizik eta atzemateko bihurriagoa den zerbait bezala, taupada edo zirrara bat bezala, eragiten eta kemena ematen

duen energia moduko bat, bero moduko bat. Sorginak mehatxatzeari inoiz utzi ez dioten Herioren oldarrei erronka egiten dieten bizi bulkadak bezala. Erresistentzia konjuru bat bezala, aztoratu eta basa, irmo eta biziraule, su bakoitzeko erdigunetik, gehien erre eta berotzen duen tokitik, kimatzen.

Erreferentzia batzuk:

- Barbara Ehrenreich y Deirdre English, *Witches, Midwives, and Nurses. A History of Women Healers*, Feminist Press, 2010 [1973].
- Starhawk, *Dreaming the Dark. Magic, Sex and Politics*, Beacon Press, 2012 [1982].
- Anna Colin, Ed. *Sorcières. Pourchassées, assumées, puissantes, queer*, Maison populaire, Éditions B42, 2012.
- Silvia Federici, *Calibán y la bruja: mujeres, cuerpo y acumulación primitiva*, Traficantes de sueños, 2015.

EN TORNO A LA HOGUERA. PRÁCTICAS BRUJAS CONTEMPORÁNEAS

Maria Ptqk

La hoguera que da título a Inmersiones 2018 es una invocación. Algo así como una llamada o una puerta que se abre sobre una pregunta que, en el momento en el que la imagino, intuyo que resuena también en otros cuerpos. La pregunta –que resulta que sí, que resuena– podría expresarse de la manera siguiente. ¿Qué formas toman hoy ciertas prácticas que, aunque de modos no siempre explícitos, se emparentan con la idea de “lo bruja”? ¿Qué formas de hacer y de saber, qué formas de estar en el mundo, actualizan esa herencia que es al mismo tiempo mito y memoria, historia y fantasmagoría?

La figura de la bruja es ambivalente. Aparece en el imaginario popular al inicio de la edad moderna y se extiende durante más de dos siglos en todo el territorio de la cristiandad, desde Europa hasta América, coincidiendo con el colonialismo, el auge de la ilustración y la llamada revolución científica. Pero de acuerdo con la historiografía reciente, los juicios por brujería no son, como a menudo se ha defendido, los últimos coletazos de un mundo que se extingue –el de la ignorancia y la superstición de la época feudal– sino los primeros de un nuevo *estatu quo*, un largo cambio de paradigma en el que las cazas de brujas aparecen como persecuciones políticas. En ellas está en pugna el dominio sobre las tierras comunales, la contención del campesinado y el control de los saberes sobre el medio natural, en particular los que tiene que ver con el mantenimiento de la salud y la vida. Pero sirven también a otros fines. Los procesos por brujería son un argumento para llevar a cabo incursiones militares, someter territorios rebeldes y, en general, para articular las luchas y conspiraciones de los poderes fácticos que compiten por el nuevo mundo que está por nacer: estados-nación, emergentes clases urbanas e instituciones eclesiásticas, entre otros.

Fruto de ese contexto son los cuentos de escobas voladoras, ceremonias nocturnas, cópulas con el diablo o bebés servidos en bandejas, imágenes que se repiten en los cuentos populares hasta el día de hoy pero que provienen de las confesiones obtenidas bajo tortura, casi idénticas entre ellas y todas igualmente inverosímiles, creadas en la mente del inquisidor.

Pero a la vez, a pesar de este bagaje opresivo, la bruja es portadora de promesas sugerentes. Una, la de la revolución siempre postergada de las mujeres que la decodifican como arquetipo machista y la recuperan, ola tras ola del movimiento, como estandarte de la memoria colectiva. En la diversidad de las corrientes feministas, la consigna “somos las hijas de las brujas que no pudisteis quemar” atraviesa sensibilidades y generaciones. Otra promesa es la de la comunión con la naturaleza, con sus poderes y misterios: la hechicera es la que sabe leer el cielo, oler la tierra, cultivar hierbas y hongos, criar abejas y lombrices, la que conoce la dosis que separa el remedio del veneno, la que ayuda al parto cuando es deseado y lo impide cuando no lo es. Otra promesa más: la del contacto con lo oculto, lo invisible, lo inexplicable, con lo dionisiaco y los reinos de lo oscuro, con la tradición de la magia y los cultos paganos, la sabiduría de las experiencias extrasensoriales y otros estados de conciencia. En este sentido, la bruja es médium, barquera entre orillas, pasante entre mundos, conocedora de las grietas.

Convertidas en propuesta curatorial, todas estas promesas –de ser, de poder, de saber, de trascender– definen un marco de encuentro. Un espacio-tiempo de aquellarre que, desde el campo del arte pero también desbordándolo, invita a mirar en dos direcciones. Por un lado, hacia el



modo en el que las estrategias artísticas validan formas de saber y de hacer que, como las de las brujas, a menudo circulan en los márgenes o por debajo de las líneas de flotación: conocimientos anónimos, sin autoridad o deslegitimados, metodologías anómalas o fronterizas, ciencias bastardas, impropias o periféricas, epistemologías indocumentadas. Por otro, hacia la idea de hoguera como "hogar": etimológicamente, el lugar donde arde el fuego. Desde esa mirada aparecen propuestas interesadas por los entornos de refugio y sororidad, espacios físicos o simbólicos en los que protegerse de nuevos o viejos tipos de inquisición, inventar encantamientos y contra-hechizos y mantener vivas otras historias sobre el mundo.

En su diversidad de medios, las y los artistas de Inmersiones 2018 transitan estos terrenos. Desde los subterfugios de la clandestinidad o la supervivencia de la memoria hasta las inteligencias del cuerpo o la palabra como magia; desde el uso de lo simbólico como invocación –qué otra cosa es sino el arte– hasta la reflexión crítica sobre las artes populares o los estereotipos sobre la mujer que desoye los mandatos de género: la salvaje, la impropia, la contestataria, la arisca, la loca, "la bruja". En su heterogeneidad, las propuestas presentadas tienen algo en común, algo que las conecta entre sí y con otras que no están, no como un hilo

conductor sino algo más inaprensible, como un latido o una vibración, una especie de energía que mueve y da potencia, una especie de calor. Como un coro de pulsiones de vida desafiando las pulsiones de muerte, las que nunca han dejado de amenazar a las brujas. Como un conjuro de resistencia, alborotado y feroz, decidido y superviviente, brotando desde el centro de cada hoguera, donde más quema y más calienta.

Algunas referencias:

- Barbara Ehrenreich y Deirdre English, *Witches, Midwives, and Nurses. A History of Women Healers*, Feminist Press, 2010 [1973].
- Starhawk, *Dreaming the Dark. Magic, Sex and Politics*, Beacon Press, 2012 [1982].
- Anna Colin, Ed. *Sorcières. Pourchassées, assumées, puissantes, queer*, Maison populaire, Éditions B42, 2012.
- Silvia Federici, *Calibán y la bruja: mujeres, cuerpo y acumulación primitiva*, Traficantes de sueños, 2015.

MEMORIAKO EZKUTALEKUAK

Ana Longoni

Embute hitza 60/70 urteetako Argentinako militantzian, sasian bizirauteko kode sekretuan erabilitako hitz bat da. Maite Garbayok adierazi zidan Euskal Herriko tradizio politikoan "zulo" izan daitekeela haren baliokidea.

Embute bat, hizkera zifratu horretan, ezkutaleku bat da. Pareta faltsu baten atzean dagoen espazio txiki bat. Altzari bateko tiradera ezkutu bat da, auto bateko hondo bikoitz bat, maletatxo bateko tarte ezkutu bat, arkatx ontzi bateko barrualdea, gorputzeko zimur bat, edozein amarru, prekario bezain adimentsu, mezu bat edo prentsa debekatu bat eramateko, galbidea ekar dezakeen agiri bat gordetzeko, armak, pertsonak, bizi klandestinoak ezkutatzeko.


Hitz horrek bat-batean eramaten gaitu beste historia testuinguru batera: Latinoamerikan barrera gizartea errotik aldatzeko aurreikuspenak hedatu zireneko garai bat, Kubako iraultzaren arrakastaren ondoren. Garai hori 1976ko martxoaren 24an Argentinan hasitako diktaduraren kolpe astunaz itxi zen, Estatu terrorismoa inoiz ikusi gabeko eskala batean sistematizatu zuena: 30.000 desagertu, 500 kontzentrazio esparru baino gehiago herrialde osoan, milaka hildako, erbesteratu eta preso politiko. Kontinente osoko errepresio operazio bat izan zen (Plan Condor), erreboltaren ahalmena desegiteko martxan jarria; hartara, hainbat bizitza eta haien historia moztu zituzten.

Testu hau ezkutalekuez hitz egiten du, eta hain ongi zeuden eginda non ez ziren berrogeita hamar urte arte geroago azaleratu. Horiek sortu eta irauteko, errepresio politikoa eta familia isiltasunak uztartzen dira. Horren aurrean, berriz, haiek aurkitu, ireki eta argitara ekartzeko desblokeatze ahalmen izugarria, beste denbora bateko hondar horiek erakutsi eta zirkulazioan jartzeko ahalmena. Berriz agertzea tematzen da.

Embutes de la memoria idaztea erabaki nuen bi argazki ezustean eta nahigabe agertu zirelako, hirurogeiko urteetako Argentinako abangoardiaren joera ulertzeko erabakigarriak izan zirenak. Duela hilabete gutxi batzuk arte, irudi horiek existitzen ez zirela uste genuen, eta 2017ko abenduko astean agertu ziren (zitzaizkidan).

Abenduko aste hori beti izaten da hilabete bete Buenos Airesen (urtea ixten, festen eromena, eta bero handia), eta bereziki korapilatsua izan nuen nire bizitzan. Ama (landa ingurunean bakarrik bizi dena) nire etxean nuen bizitzen, aldakako protesi-ebakuntza bateko operazio-ondo luzea igarotzen. Ni koskak berdintzen nengibilen, amaren zainketa lanak eta Buenos Aireseko Espainiaren kontsulatuan lan bisaturako izapideak nola hala bateratzen; izan ere, Reina Sofia Museoa lan egiteko Madrilera lekualdatzeko proposamena onartu nuen eta, abiatu baino lehen, izapide eta zeregin guztiak lotzen nengibilen. Laburbilduz, egun bihurriak ziren, zailak, nekosoak.

Egoera horren erdian, Cloek, Oscar Masottaren alabak, idatzi egin zidan haren amaren etxean, Bartzelonan, aurkitu zituen material batzuk eskaneatzen ari zela kontatzeko. Cloek gaizki ohituta nauka horrelako ezustekoekin: aurkikuntza ugari egin ditu ezagutzen garen bost urte honetan familiaren kutxan, bere historian (eta berak bi urte zituela hildako aitarekiko harremanean) maitasunez eta adorez murgildu zenetik. Ikerketa prozesu luze horretatik abiatuz, erakusketa bat egin zuen: *Oscar Masotta. La teoría como acción*¹. Bada, argazki sorta berri bat bidali zidan eta, berehala, haietan buru-belarri jarri nintzen ilunabar batean, burokrazia izapideak eta osasun gaiak txandakatzen ibilitako egun astun baten ondoren: bidaia argazkiak zeuden (portu bateko joateko agurra, New Yorkeko kaleetako erakusleihoak), artisten artelan indibidualenak, hirurogeiko urteetako argentinarraren abangoardiakoak gehienetan, baita iparramerikar zein frantses artisten pare bat artelan ere, segur aski 1966ko bidaian topatu zituenak. Multzo horretan, ondorengo argazkia zegoen.



Ikusi eta aho bete hortz geratu nintzen berehala. Segituan Roberto Jacobyri birbidali nion, galdera bat gehituz: hori uste dudana da? Berak baietz erantzun berehala, bera ere hunkituta zegoen. Aspaldi da Ricardo Carreiraren "odol putzuaz" hitz egiten ez dugula, eta damu dugu, halaber, ez dagoela irudi bakar bat ere azalduz hura zer izan zen, nola gertatu zen. "Odol putzua" da artelan gogoratuena 1966an *Homenaje al Vietnam* Van Riel galeriako hiru aretoak bete zituzten berrehunen artean. Erakusketa kolektibo bat izan zen, eta berrehun parte-hartzaile bildu zituen, askotariko posizio estetiko eta politikoen sorta zabal bat. Ikusi zuten guztiak bat etorri ziren esatean odol putzua izan zela han

¹ *Oscar Masotta: la teoría como acción* erakusketa, Ana Longoni komisario izan zuena; MUACen 2017an hasi zen (Mexikon), eta MACBAn 2018an (Bartzelonan) eta Memoria-
ren Parkean 2019an (Buenos Airesen) jarraitu.



bildutako artelan ugarien artean asaldagarriena. Aretoko zoruaren erdian zetzan poliester erretxin gorrizko putzu batek erreferentzia egiten zion Estatu Batuetako armada Vietnamen egiten ari zen sarraskiari. Eta putzua Carreira jaio eta luzaro bizi izandako Mataderos auzoko hozkailu baten atarian kokatzen zenean, orduan animalien hilketak ematen zituen aditzera. Eta ESMaren, Buenos Airesen indarrean jarritako atxilotze eta deuseztapen zentro klandestino handienetako baten, ingurumarian instalatzen bazen, orduan Argentinan indarrean zen genozidioa ematen zuen aditzera.

Argentinar abangoardian interesatuta daramadan urte guztietan, inoiz ez nuen ikusi putzuaren argazkirik. Artelana bi bider berreraiki zen, betiere erresistentziak eta eztabaida sortzen (ez zela horrelakoa, ez zela hain handia, gorriagoa zela), baina argazkirik ez. Kontakizuna besterik ez, mitoa.

Bat-batean, hor beti egon zena, zain-zain. Bartzelonako txoko batean, inoiz berrikusi gabeko paper sorta baten artean. Arte horren patua galtzea zen ezin bestean. Baita beste garai batzuetan berragertzea ere.

Bero eta anabasz jositako Buenos Aireseko aste horretan, Romina D'Andrea mezu elektroniko bat idatzi zidan, nik ezagutzen ez nuen neska artista bat. Liburu-denda batean, beste izenburu baten bila ari zela, *Del Di Tella a Tucumán Arde. Vanguardia artística y política en el 68 argentino* topatu zuen, Mariano Mestman eta biok 2000n idatzi genuena, eta tartean zuen Eduarco Ruanori egindako elkarrizketa bat; bada, hura neskaren osaba zen. Esan zidan zerbait erakutsi nahi zidala. Nire agenda eta bizi energiak arrazoiz kudeatzekotan, ezezkia erantzun beharko nion adiskidetasunez, aurrerago beharbada, aurrez adieraz ziezadala mezu elektronikoz zer nahi zuen. Nik, berriz, ezin eutsi nire buruari. Eta kafetegiri batean elkartu ginen. Kontatu zidan duela denbora bat familia etxe zahar berean bizi zela Vicente Lópezen, eta bertan errepresio indarrak bortizkeriaz sartu zireen hainbat bider, Eduardo (1975ean Herriaren Armada Iraultzaileko militantea) atxilotu zuten arte; Eduardo preso politiko izan zuten hainbat urtez.

1968an, Ruanok Buenos Aireseko abangoardia artistikoan parte hartzen zuen gogotsu. *Ver y Estimar* Sarian parte hartzeraz gonbidatu zuten, eta

Arte Modernoko Museoaren aretoko izkina batean beirate bat instalatu zuen, Kennedyren omenaldiko panel ofiziala errepikatzen zuena. Irudia beira lodi batez zegoen babestuta, eta gertu, instalazioaren zati gisa seinalatzatua, berun adreilu bat zoruari.

1968ko apirilaren 30ean, sariaren inaugurazio zeremonian (protokolozko brindis tipiko batean), Ruano lagun talde batekin sartu zen bat-batean: Buenos Aires eta Rosarioko artistak eta ikasleak ziren. Bada, "Kanpora yankiak Vietnamentik" oihukatuz, adreilura hurbildu zen, beira hautsi zuen, eta irudian arrasto bat egin zuen. "Erasoaren" ondoren, taldea museotik atera zen bizkor-bizkor.

Eszena hau hamaika aldiz kontatu nuen, 68ko ibilbidea hasten duen argentinar abangoardiaren ekintzen eta posizio-hartzeen segida bat, eta agerian geratzen da izandako erradikalizazioa, hala artearen nola politikaren aldetik. Bada, nik berdina errepikatzen nuen eskueran nituen prentsako argazki zatir bakarretan oinarrituz: artelana ez da ez panel ukigabea, ez panel suntsitua (bestalde, poliziak esku hartu zuen, eta hura berehala kendu zuten, museoko agintariek hala aginduta).



Ruanoren artelana Kennedyren irudi ofiziala museoaren erdian harri-katzearen egitate, ekintza kolektiboa da, arte erakunde baten barruan ekintza politiko bat gauzatzea. Eta argazki hori, egitate horrena, Ruanok ere gogoan ez zuena, Rominak ezkutaleku batean aurkitu zuen, literalki.

Argazki hori pelikula batetik aterata dirudi. Ekintzaren une iheskorra atzematen duen irudia, ezkutatuta errepresioak atzeman ez dezan.

Gure lehendabiziko topaketan, Rominak kontatu zidan hasieran ezustean aurkitzen zituela ezkutalekuak, baina orain gogotsu bilatzen zituela (gutunak, idazkiak edo argazkiak ezkutatzen zituen estalki bikoitzeko liburu bat, hondo bikoitzeko altzari bat, tiradera ezkutu bat). Gordeleku horietan, bere osabaren oroimenaren material sakabanatuak aurkitzen joan da. Beste denbora bati mezu gisa utzitako aztarnak.

Aste berean, duela hilabete gutxi batzuk existitzen ez zirela uste genuen bi argazki agertu ziren, hirurogeiko urteetan jaio ez ziren bi gaztek aurkituak. Aurkikuntza horiek ez dira azarea. Horren azalpena maitasun lokarriek eta trama estali batek, berrogeita hamar urte geroago aktibatuak, eman dezake bakarrik. Oso goiz hil zen aitaren paperak berraztertzeke parada hartzen duen alaba bat; hain goiz hil zen non hura gogoratzen ez duen. Iloba batek, berriz, pazientzia bilatzen ditu oraindik azaleratuak izatea itxaroten duten sasiko ezkutalekuak. Espazio intimoan galdutako (eta, aldi berean, babestutako) irudiak dira, horiek agerrarazi eta irakurketa bat eragingo duten baldintza historiko eta afektiboak zain.

Azkenean.

EMBUTES DE LA MEMORIA

Ana Longoni

La palabra “embute” es parte del vocabulario de la militancia en la Argentina de los años 60/70, del código secreto de la supervivencia en la clandestinidad. Maite Garbayo me indicó que en la tradición política del País Vasco un equivalente podría ser la palabra *zulo*, agujero.

Un embute –en esa jerga cifrada– es un escondite. Un pequeño espacio tras una falsa pared. Un cajón oculto en un mueble, un doble fondo en el piso de un auto, un compartimento secreto en un maletín, el interior de una lapicera, un surco del cuerpo, cualquier artilugio tan precario como ingenioso para trasladar un mensaje o la prensa prohibida, guardar documentos comprometedores, esconder armas, personas, vidas clandestinas.

Esa palabra nos ubica de golpe en otro contexto histórico: el de una época de extendidas expectativas de transformación radical de la sociedad que se esparcieron en América Latina después del triunfo de la revolución cubana. Una época que se clausuró con la pesada losa de la dictadura iniciada en Argentina el 24 de marzo de 1976, que sistematizó el terrorismo de Estado en una escala inédita: 30.000 desaparecidxs, más de 500 campos de concentración en todo el país, miles de asesinadxs, exiliadxs y presxs políticos. Una operación represiva continental (el Plan Condor) que se puso en marcha para dismantelar esa potencia insurgente, arrasando vidas y también su historia.


Este texto habla de embutes tan bien hechos que no se desvelaron hasta cincuenta años después. Se superponen en su origen y en su persistencia represión política y silencios familiares. Pero ante eso: la enorme capacidad de desbloqueo que logra dar con ellos, abrirlos y sacarlos a la luz, revelar y poner esos restos de otro tiempo en circulación. Lo que insiste en reaparecer.

Decidí escribir “Embutes de la memoria” ante la aparición inesperada y coincidente de dos fotos clave para entender la deriva de la vanguardia argentina de los sesenta, imágenes que hasta hace pocos meses pensábamos que no existían y que se (me) aparecieron en la misma semana de diciembre de 2017.

Esa semana de diciembre, que siempre es un mes cargado en Buenos Aires (de cierre del año, la locura de las fiestas, y muchísimo calor) era particularmente complicada en mi vida. Mi mamá –que vive sola en el campo– estaba instalada en mi casa, transitando el largo posoperatorio de una cirugía por prótesis de cadera. Yo estaba haciendo malabares, dedicada a cuidarla a la vez que haciendo trámites del visado de trabajo en el consulado de España en Buenos Aires, luego de aceptar la propuesta de mudarme a Madrid a trabajar en el Museo Reina Sofía, y

tratando de resolver todos los trámites y trabajos pendientes antes de partir. En fin, eran días complejos, difíciles, exasperados.

En medio de esa situación, Cloe, la hija de Oscar Masotta, me escribió contándome que está escaneando algunos materiales nuevos que encontró en casa de su madre, en Barcelona. Cloe me tiene malacostumbrada a esas sorpresas: sus hallazgos en el arcón familiar han sido muchos a lo largo de los cinco años que hace que nos conocemos, a partir de que se involucró de manera amorosa y valiente en bucear en su propia historia (y el vínculo con su padre, que murió cuando ella tenía apenas dos años) en el largo proceso de investigación colectiva que llevó a la exposición *Oscar Masotta. La teoría como acción*¹. Así que apenas me mandó esa nueva tanda de fotos, me sumergí en ellas un atardecer, luego de una larga jornada que entrecruzó trámites burocráticos con asuntos médicos: había fotos de viajes (una despedida en un puerto, escaparates en las calles de Nueva York), de obras individuales de artistas, la mayor parte de la vanguardia argentina de los sesenta, y un par de obras de artistas norteamericanos y franceses que seguramente se topó en su viaje en 1966. En ese conjunto estaba esta foto.



Apenas la vi me sobresalté. Se la reenvié de inmediato a Roberto Jacoby con la pregunta: ¿es lo que creo que es? Me lo confirmó enseguida, también emocionado. Hace muchos años que hablamos del “charco de sangre” de Ricardo Carreira, y también lamentamos la inexistencia de una sola imagen que dé cuenta de lo que fue, de cómo fue. El “charco de sangre” es la obra más recordada de las doscientas que

1 *Oscar Masotta: la teoría como acción*, exposición comisariada por Ana Longoni, iniciada en el MUAC (México) en 2017 y que continuó en el MACBA (Barcelona) en 2018 y en el Parque de la Memoria (Buenos Aires) en 2019.



ocuparon por completo las tres salas la galería Van Riel en el *Homenaje al Viet-Nam*, en 1966. Fue una exposición colectiva que reunió a doscientos participantes, un amplio espectro de muy diversas posiciones estéticas y políticas. Todxs los que lo vieron coincidían en señalar el charco de sangre como la más impactante de las muchas obras allí reunidas. Un charco de resina polyester rojo en el medio del piso de la sala aludía a la masacre que el ejército estadounidense estaba produciendo en Vietnam. Porque si el charco se emplazaba en la puerta de un frigorífico en el barrio de Mataderos, donde Carreira nació y vivió gran parte de su vida, el señalamiento era a la matanza de animales. Y si se instalaba en las inmediaciones de la ESMA, uno de los mayores centros clandestinos de detención y exterminio que funcionaron en Buenos Aires, el señalamiento pasaba a ser al genocidio en curso en la Argentina.

Durante todos los años que llevo interesada en la vanguardia argentina de los años sesenta, nunca había visto ninguna foto del charco. La obra se reconstruyó un par de veces, siempre generando resistencias y debates (no era así, no era tan grande, era más roja), pero no había foto. Solo el relato, el mito.

De golpe, lo que siempre estuvo allí, aguardando. En un rincón de Barcelona, dentro de un conjunto de papeles nunca vueltos a revisar. Un arte destinado inexorablemente a desaparecer. Y también a reaparecer en otros tiempos.

Esa misma semana calurosa y caótica del último diciembre porteño me escribió un mail Romina D'Andrea, una joven artista a quien yo no conocía. Se había topado en una librería, buscando otro título, con *Del Di Tella a Tucumán Arde. Vanguardia artística y política en el 68 argentino*, libro que escribimos Mariano Mestman y yo en 2000, que incluye una entrevista a Eduarco Ruano, su tío. Me dijo que me quería mostrar algo. Cualquier manejo razonable de la agenda y de las energías vitales hubiera indicado que le tenía que decir amablemente que no, que más adelante, que me anticipara por mail lo que necesitaba. Pero no pude conmigo. Nos encontramos en un café. Me contó que hace un tiempo vive en la misma vieja casa familiar en Vicente López, que fue allanada por las fuerzas represivas en varias ocasiones hasta que fue detenido Eduardo, militante del Ejército Revolucionario del Pueblo en 1975 (fue preso político durante varios años).

En 1968, Ruano era parte activa de la vanguardia artística de Buenos Aires. Fue invitado a participar en el Premio *Ver y Estimar*, e instaló en una esquina de la sala del Museo de Arte Moderno una vidriera que

replicaba el panel oficial en homenaje a Kennedy. La imagen estaba protegida por un grueso vidrio, y cerca, señalizado como parte de la instalación, un ladrillo de plomo en el piso.

El 30 de abril de 1968, en medio de la ceremonia inaugural del premio –un típico brindis protocolar–, Ruano irrumpió con un grupo de amigos (artistas y estudiantes de Buenos Aires y de Rosario) al grito de “Fuera yanquis de Vietnam”, se dirigió hacia el ladrillo, rompió el vidrio y rayó la imagen. Luego del “atentado”, el grupo se retiró del museo rápidamente.

Las mil veces que relaté esta escena que inicia el itinerario del 68, una seguidilla de acciones y tomas de posición de la vanguardia argentina que evidencian su radicalización tanto artística como política, repetía lo mismo a partir de las únicas malas fotos de prensa de las que disponía: la obra no es ni el panel intacto ni el panel destrozado (que además fue retirado inmediatamente luego de la intervención policial y por indicación de las autoridades del museo).

La obra de Ruano es el acto, la acción colectiva de apedrear la imagen oficial de Kennedy en medio del museo, producir un acto político en el seno de la institución arte. Y fue esta foto, la del acto, de la que ni el propio Ruano recordaba su existencia, la que Romina encontró –literalmente– en un embute.

Una foto que parece extraída de una película. La imagen que captura el instante efímero de la acción, escondida para que no sea capturada por la represión.



En nuestro primer encuentro, Romina me cuenta que primero se topaba con embutes inesperadamente y ahora ya los busca a conciencia (un libro con doble forro que escondía cartas, escritos o fotos, un mueble con un doble fondo, un cajón escondido). En esos embutes ha ido encontrando materiales dispersos de la memoria de su tío. Huellas dejadas como mensajes a otro tiempo.

Dos fotos que hasta hace pocos meses pensábamos que no existían aparecieron en la misma semana, encontradas por dos jóvenes que no habían nacido en los años sesenta. Estos hallazgos no son azar. Solo pueden explicarse por los lazos afectivos, una trama latente y activada cincuenta años después. Una hija que se anima a revisar los papeles de su padre, que murió tan pronto que ella no puede recordarlo. Una sobrina que se dedica a buscar pacientemente escondites clandestinos que todavía hoy esperan ser develados. Imágenes perdidas (y a la vez resguardadas) en el espacio íntimo, aguardando condiciones históricas y afectivas de legibilidad que provoquen la posibilidad de su irrupción.

Por fin.

HILSTITUZIONAL TASUNA ETA TESTUINGURUA. GALIZIAKO BURLA NEGRAK 15 URTE

Ania González eta Horacio González

Sorgin gupil urteak behin eta berriz itzultzen dira Galiziara, dena estrainaldi batean dago beti, kemen osoz jaio eta sustraitu ezinik desagertze-
ra kondenatuta, hurrengo aurrekoarekiko batere konexiorik gabe berriz
sor dadin. Galizia aparatu hilstituzional bat da, aldian-aldian errezel beltz
lodi batez estalia, bere balibide guztiak haren *post mortem* existentzia
mugagabe luzatzeko baliatuz.

Duela 16 urte, Burla Negra elkartu zen *Nunca Más* deiadarrarekin bat
egiteko, zortzigarren marea beltz atlantikoaren ondoren. Egun, geure
buruari abailduta galdetzen diogu: zer gertatu zaio denbora honetan
kulturari? Beste (barne) marea beltz batek zeharkatu ditu gure gorpu-
tzak. Heriotzaren izar batek dirdir egiten du Gaiás mendiaren ostertzean,
metatutako galipot poltsen gainean eraikia, artean poltsa haiekin zer
egin ez dakigula. Saturnok bere semeak jaten jarraitu du; alabek, berriz
(Encontros Of, Alg-a, Escoltar, Amalgama, FAC Peregrina, La Nave....) -*in
girim imus nocte et consumimur igni* dantzan egin dugu sutan, harra-
patuak izan baino lehen ziztu batean sutan kontsumitzeko. Eta negua
Esmeralda Hiriaren atarian denean, vigotar Ozeko Mago batek Egube-
rriko ikuskizun burrunbatsu bat fabrikatu du turistentzat; "musika eta
argia, aurrera!".

Zer egin? Burla Negra berriz gogora ekarri? Hildako arima bat berpiztu?
Dagoeneko existitzen ez den zerbaiten ameskeria sortzeko ahalegina
egin? Ez! Lurpera dezagun, hobeto. Atera gaitzeen Santa Compañako
segiziora gure hildakoak agurtzera, hileta egitera; utz dezagun hilik hilik
dagoena bizian bizirik dagoena bizitzeko. Egin dezagun igarotza-eritual
bat, utz dezagun Kultura eta eraman ditzagun gure praktikak beste toki
batzuetara, atera gaitzeen sorgin gupiletik eta has gaitzeen beste gau-
za batzuk beste testuinguru batzuetan egiten edo, besterik gabe, dantza
dezagun indarberriturik. Behar bezala ehortzen ez dena berriz itzultzen
da, gure gainera zamatzen da, eta trauma bat baillitza jazartzen gaitu.
Ehortz dezagun kultura 2018an itsasoa 2003an ehortzi genuen bezala.
Egin dezagun hileta honetaz biziaren festa bat.

Inmersiones Gasteiz 2018 Suaren inguruan-ek sorgin praktiketan oinarritu-
tuz pentsatzera zirikatzeko gaitu, III Foro Negroen inguruan:

*Quando a cabeça não tem juízo. Quando te esforças mais do que é
preciso. O corpo é que paga. Quando a cabeça não se liberta das
frustrações, inibições, toda essa força que te aperta... O corpo é
que sofre. Deix'ó pagar, deix'ó pagar, se tu estás a gostar.*

Guretzat, kulturen magia beti izan da beltza, odolean prezioaren bat da-
karren magia mota bat, gorputz zatiekin ordaintzen dena, josturak eta
orbainak utziz. Kultura zinegotzi batekin biltzeko bidean eduki eta esku
gabe utzi zigun ezusteko bizikleta istripu batetik hasi eta *De corpo en
lugar* jaialdian izandako gorputz oso arte, hori izan zen IGAPA Institu-
to Galego de Praxe Actualeko Eratze Akta sinatzearen ordaindutako
preziosa. CGAC Centro Galego de Arte Contemporáneoeko patronatuaren
aretoan sinatu zen, Kulturen Idazkari Nagusi txunditu baten aurrean.

Kultura itxuraz emaitzarik gabeko sorginkeria lila bat da, sistema-
tikoki gure kontra bihurtzen dena, aurpegian masaleko bat emateko.
"lusvalia" gabeko "P" bat bezala (hori baita sortzen ari diren artisten
artelanak eskuratzearen kontra, kentze praktika bat den neurrian, CGA-
Cen zabalduko pankartatik ikusgai geratu zen zati bakarra), kulturen
gizakiaren bestelako denbora dimentsio batean funtzionatzen du,
indar eraldatzaile bat da, lurraldea oso era igartezinean higitzen due-
na, hainbeste non festako gonbidatuek selfieak egiten jarrai dezaketen
ezertaz ere enteratu gabe. Kulturen aritzeak ezin bestean nekaratzen
du eta iragankorra da, eta etsigarria, inoiz ezin baititugu ikusi haren
